

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

2020 ekitaldirako egutegi fiskalaren aldaketa

2020ko apirilaren 3ko 370 Alkatetza-dekretuaren bidez honako hau erabaki da:

«Pasa den urtarrilean, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) nazioarte mailako osasun publikoko larrialditzat jo zuen Covid-19 koronabirusak sortutako egoera. Covid-19ak izan duen bila-kaerak eragindako egoeraren ondorioz, osasun-arloko agintariek aparteko euste-neurriak hartu behar izan dituzte.

Dekretu honen xedea da agintari eskudunek hartutako neurrien eraginpean dauden zergadunak izaten ari diren inpaktu ekonomiko negatiboari aurre egiteko neurriak hartzea.

Covid-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurrien ondorioz, salbuespenezko zenbait neurri hartu behar ditugu zerga-arloan epeak eteteko prozedurari dagokionez. Neurri hauen helburua herritarrei egoera larri honi aurre egiten laguntzea da.

Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatzeko duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren, lehen artikulua eta bakararra kontuan izanik, administrazio-epeak etetea ez zaie aplikatuko araudi bereziari lotutako zerga-epeteei.

Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 foru Arauaren 7. artikulua ezartzen duen arabera Gipuzkoako udalerriei dagokie, Foru Arau honetan ezarritakoaren barruan, beren tributua ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta udalerriek aurreko apartatu hauetan bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendu erregimenera egokitu ahal izango dute.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkatetari dagokio, besteak beste, a) udal-gobernua eta administrazioa zuzentzea; m) hondamendi edo ezbehar publiko edo arrisku larriren bat gertatuz gero, zuzenean eta bete erantzukizunpean beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, behar horren berri Udaltzari emanez.

Eskumen horien arabera, honako hau,

ERABAKI DUT

Lehenengo. Zerga Egutegian ondorengo aldagetak onartzea:

— Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergak (TMIZ).

Borondatezko epea martxoaren 2tik ekainaren 30 arte ezartzea.

— Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ).

Borondatezko epea abuztuaren 1etik irailaren 15 arte ezartzea. Helbideratuen kargu eguna abuztuaren 31 izango delarik.

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Modificación del calendario fiscal para el ejercicio 2020

Mediante el Decreto de Alcaldía n.º 370 de 3 de abril de 2020 se ha resuelto lo siguiente:

«El pasado mes de enero, la Organización Mundial de la Salud (OMS) calificó de emergencia de salud pública internacional la situación generada por el coronavirus Covid-19. La situación derivada de la evolución del Covid-19 ha obligado a las autoridades sanitarias a adoptar medidas de contención extraordinarias.

El presente Decreto tiene por objeto adoptar las medidas necesarias para hacer frente al impacto económico negativo que están teniendo en los contribuyentes afectados por las medidas adoptadas por las autoridades competentes.

Como consecuencia de las medidas extraordinarias urgentes para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19, debemos adoptar una serie de medidas excepcionales en relación con los procedimientos de suspensión de plazos en materia fiscal. El objetivo de estas medidas es ayudar a los ciudadanos a hacer frente a esta grave situación.

Teniendo en cuenta el artículo primero y único del Real Decreto 465/2020, del 17 de marzo, por el que se modifica el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la crisis sanitaria producida por el Covid-19, la suspensión de los plazos administrativos no será de aplicación a los plazos impositivos sujetos a normativa específica.

El artículo 7 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece que corresponde a los municipios guipuzcoanos, dentro de lo establecido en esta norma foral, la exacción, gestión liquidación, inspección y recaudación de sus tributos, pudiendo los municipios ajustarse a su régimen de organización y funcionamiento en los apartados anteriores.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, corresponde al Alcalde, entre otras, la función de a) dirigir el gobierno y la administración municipal; m) adoptar personalmente, bajo su responsabilidad, en caso de catástrofe o de infortunios públicos o grave riesgo de los mismos, las medidas necesarias u adecuadas dando cuenta inmediata al Pleno.

En virtud de dichas competencias,

DISPONGO

Primero. Aprobar las siguientes modificaciones del Calendario Fiscal:

— Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM).

Se establece el período voluntario de pago desde el 2 de marzo al 30 de junio.

— Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI).

Se establece el período voluntario de pago desde el 1 de agosto al 15 de septiembre, procediéndose al cobro en cuenta de los domiciliados el 31 de agosto.

– Ura eta Estolderia.

a) 2019/03 epealdia.

Borondatezko epea otsailaren 14tik apirilaren 30 arte ezar-tzea.

b) 2020/01 epealdia.

Borondatezko epea uztailaren 15etik irailaren 15 arte ezar-tzea. Helbideratuen kargu eguna abuztuaren 17a izango delarik.

c) 2020/02 epealdia.

Borondatezko epea urriaren 15etik abenduaren 16 arte ezar-tzea. Helbideratuen kargu eguna azaroaren 13a izango delarik.

– Zaborra.

a) 2020/01 epealdia.

Borondatezko epea ekainaren 1etik uztailaren 15 arte ezar-tzea. Helbideratuen kargu eguna uztailaren 1a izango delarik.

b) 2020/02 epealdia.

Borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10 arte ezar-tzea. Helbideratuen kargu eguna urriaren 29a izango delarik.

– Gainontzeko zerga eta tasen epealdiak mantendu egiten dira.

Bigarren. Zatiketak eta atzerapenak. Zatiketa planetan onartutako kuoten ordainketa hilabetez atzeratzen dira inolako interesik ezarri gabe.

Hirugarren. Zerga kitapenen ordainketa epea atzeratzen da martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren baitan, hau da:

– Martxoaren 17 arte jakinaraziak apirilaren 30 arte izango dute ordaintzeko.

– Martxoaren 18tik ondorengoak maiatzaren 20 arte izango dute ordaintzeko.

Covid-19 dela eta sortutako alarma egoeraren ondorioz, mar-txoaren 14ean 463/2020 E. Dekretua onartu zen eta bere Hiru-garren Xedapen Gehigarrian, 465/2020 E. Dekretuak emandako idazketarekin, prozedura administratiboan epeak bertan behera utzi ziren. Agindu orokor horri honako salbuespenak ezarri zitza-izkion, batetik interesatuak kalterik ez izatera bideratutako ka-suetan, beti ere bere baimenarekin, edota interesatuak epea ber-tan behera ez uztearekin adostasuna adierazten duen kasuetan, eta bestetik, alarma egoerari aurre egiteko neurriak hartzea hel-buru denean edo interes orokorra babestu eta zerbitzuen oina-rrizko funtzionamendua bermatzea bilatzen denean.»

Interesatuak erabaki honen kontra errekurritu nahi izanez gero, erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo kontentzi-osoan jarri aurretik, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik ha-sita hilabetezko epean, birjarpen errekurtsua tartejar beharko dute.

Berraztertze-errekurtsuaren erabakiaren kontra, boronda-tezko eran, bide ekonomiko-administratibora joaz, hilabete ba-teko epean, Gipuzkoako Foru-Auzitegi Ekonomiko-Administrati-boaren aurrean.

Birjarpen errekurtsuaren edo Auzitegi Ekonomiko-Adminis-tratiboaren erabakiaren aurka errekurritu nahi izanez gero, bi hi-labetezko epean, Donostiako administrazioarekiko auzi Epaite-giaren aurrean egin beharko dute.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Oiartzun, 2020ko apirilaren 6a.—Alkatea. (1778)

– Agua y Alcantarillado.

a) Período 2019/03.

Se establece el período voluntario de pago desde el 14 de febrero al 30 de abril.

b) Período 2020/01.

Se establece el período voluntario de pago desde el 15 de julio al 15 de septiembre, procediéndose al cobro en cuenta de los domiciliados el 17 de agosto.

c) Período 2020/02.

Se establece el período voluntario de pago desde el 15 de octubre al 16 de diciembre, procediéndose al cobro en cuenta de los domiciliados el 13 de noviembre.

– Basuras.

a) Período 2020/01.

Se establece el período voluntario de pago desde el 1 de junio al 15 de julio, procediéndose al cobro en cuenta de los do-miciliados el 1 de julio.

b) Período 2020/02.

Se establece el período voluntario de pago desde el 1 de oc-tubre al 10 de noviembre, procediéndose al cobro en cuenta de los domiciliados el 29 de octubre.

– Los períodos de pago del resto de impuestos y tasas se mantienen.

Segundo. Fraccionamientos y aplazamientos. Las cuotas a pagar aprobadas en los planes de fraccionamiento se atrasan 1 mes sin aplicación de intereses.

Tercero. El periodo de pago de las liquidaciones tributarias se atrasa de acuerdo con lo recogido en el Real Decreto 465/2020 de 17 de marzo, en concreto:

– Las notificadas hasta el 17 de marzo, tendrán de plazo de pago hasta el 30 de abril.

– Las notificadas a partir del 18 de marzo, tendrán de plazo de pago hasta el 20 de mayo.

Como consecuencia de la situación de alarma generada por el Covid-19, el 14 de marzo se aprobó el Real Decreto 463/2020 y en su Disposición Adicional Tercera, de conformidad con la re-dacción dada por el Decreto 465/2020, se suspendieron los pla-zos de los procedimientos administrativos. Se introdujeron excep-ciones a esta orden general: por un lado, las medidas para evitar perjuicios del interesado y siempre que éste manifieste su confor-midad, y por otro, cuando se trate de adoptar medidas para hacer frente a la situación de alarma o de proteger el interés general y garantizar el funcionamiento básico de los servicios.»

En caso de que cualquier interesado desee recurrir esta re-solución, deberá interponer recurso de reposición, de manera previa a la reclamación económico-administrativa o al conten-cioso, en el plazo de un mes desde el día siguiente a la publica-ción de este anuncio.

Frente a la resolución del recurso de reposición podrá acu-dir de manera potestativa a la vía económico-administrativa, ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de un mes.

En caso de querer recurrir tanto la resolución del Recurso de Reposición como la resolución del Tribunal Económico-Adminis-trativo habrá de acudir en el plazo de dos meses ante la juris-dicción contencioso-administrativa en el Juzgado de lo Conten-cioso-administrativo de Donostia.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oiartzun, a 6 de abril de 2020.—El alcalde. (1778)